

Azkaineko Herriko Etxean, 1983.eko Urriaren 30ean, goizeko 11 t'erdietan, Jean Elizalde euskaltzain zenaren mendeurrena dela eta, egin du Euskaltzaindiak bere hileroko batzarra, batzar ireki erara. Bildu dira: L. Villasante burua, J. Haritschelhar buru-ordea, P. Altuna, J. Hiriarte-Urruty, A. Irigoyen, E. Knörr, P. Lafitte, E. Larre, P. Larzabal eta J. San Martin euskaltzainak; P. Andiazabal, J. A. Arana, M. Atxaga, R. Badiola, R. Camblong, P. Charriton, J. B. Dirassar, J. Etxeberri, R. Idiart, M. Itzaina, J. B. Kurutxet, D. Landart, J. L. Lizundia eta J. J. Zearreta euskaltzain urgazleak. J. L. Lizundia Idazkari-ordeak, egiten du Idazkari lana.

J. L. Davant, X. Diharce, F. Ondarra eta J. M.^a Satrustegi jaunek ezin etorria adierazi dute.

A. Luberriaga jaun auzapeza mahaiburuan dela, hasi da batzarra.

Andre Luberriaga Azkaineko auzapezak eman dio batzarrari hasiera, bilduei ongi-etorria emanez. Herriko seme euskaltzaleak goraiatu ditu Elizalderekin batera. Herriko Kontseiluaren euskararen aldeko laguntza azpimarratzen du eta bertan diren auzapezei beste horrenbeste egiteko eskatu.

Luis Villasante euskaltzainburua, mintzatu da gero Elizalderi buruzko bere eza-gutza oroituz. E. Lapeyre, Duhalde, P. Larzabal, R. Idiart eta beste zenbait azkain-darren euskararekiko atxekimendua agertu du.

Aniceto Zugasti euskaltzain urgazle hil berriaren biziaz eta lanei buruz eskaini-tako txosten labur bat irakurtzen du J. San Martinek.

J. Haritschelhar jaunak, joan den egun bietan, ostiralez eta larunbatez, Uztari-tzen egin diren Maileguzko hitzei buruzko II. Jardunaldien berri laburra eman du.

Roger Idiart euskaltzain urgazleak bere txostena *Jean Elizalde "Zerbitzari" azkaindar eta euskaltzain* tituluduna irakurtzen du. Hitzaldi bizi, unkgarri eta atse-gina egin du. "Zerbitzari"ren esaera, jokabide, lan eta gertakizun ugari kontatuz.

Mixel Itzaina euskaltzain urgazle eta Eskualzaleen Biltzarreko lehendakariak, *Jean Elizalde "Zerbitzari" eta Eskualzaleen Biltzarra* izeneko txostenaz, Eskualza-leen Biltzarreko bilkuraren parteari hasiera ematen dio. Urteroko haurren euskara jakitearen primak antolatzen zituen Elkarteak eta horien kudeatzaile zen "Zerbitza-ri", baita ere, beste zenbait eginkizunena, hala nola, "Eskualduna", "Eskualdun Ona" eta "Gure Herria" aldizkarietako idazlanak, bere liburu eta poesiak, landare eta txo-riez egindako iker-lanak eta nola ez, pilotazale bezala, kirol honen alde egindako aha-leginak.

Ondoren M. J. Malharin andereak, Eskualzaleen Biltzarrak urtero eman ohi dituen euskararen primak banatu ditu, aurtengo haur parte hartzaile eta irabazleak iragarritz.

Eta besterik gabe amaitu da batzarrea.

Fr. Luis Villasante
Euskaltzainburua

J. M.^a Satrustegi
Idazkaria